

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5631

AGINDUA, 2016ko abenduaren 20koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita euskal kirol-federazioen 2017ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzetarako deialdia.

Abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren xedea kirol-federazioen finantzabidea arautzea da, haien urteroko kirol-programetarako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emanez (2000ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.).

287/2000 Dekretu horretako 3. artikulua xedatzen duenez, urtez urte egingo da aipatutako dekretuak arautzen dituen laguntzak jasotzeko deialdia, Kulturako sailburuaren –egun, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren– agindu bidez, eta agindu horretan gorabehera hauek zehaztuko dira: deitutako laguntzak finantzatzeko diru-hornidura; eskabideak aurkezteko epeak eta tokia; erakunde eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa; laguntzen zenbatekoa egiteko ponderazio-irizpideak, eta emandako laguntza justifikatzeko epea eta horretarako aurkeztu behar diren dokumentuak.

Agindu hau, halaber, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako Kirol Zerbitzuko Diru Laguntzen 2015-2017 Plan Estrategikoan barruan sartua dago. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak onartu du plan hori, eta sailaren web-orrian dago argitaratua.

Beraz, 287/2000 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, agindu honen bitartez gorabehera horiek zehaztuko dira, 2017. urtean laguntza-deialdia aplikatu ahal izateko.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren bidez araututako diru-laguntzetarako deialdian parte hartu nahi duenak hilabeteko epea izango du eskabideak aurkezteko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Dekretu horren bidez, euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

2. artikulua.– Eskabideak aurkezteko lekua.

Eskaerak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Zuzenean zerbitzuan, EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoetan) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

3. artikulua.– Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Eskabide-inprimakia (I. eranskina). Federazioaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta ordezkari horrek duen lege-ahalmenaren egiaztagiria ere aurkeztu behar dira.

b) Erakundearen 2017ko ekitaldiko aurrekontua, batzar nagusiak onartua, VI. eranskineko kontabilitate-ereduaren arabera.

c) Entitate onuradunak eskatu dituen edo ustez jasoko dituen beste laguntza batzuen ziurtagiria, tokian tokiko federazioaren idazkariak emana, honako hauek zehaztuta: laguntzok emango dituen erakunde publiko zein pribatuaren izena; diru-laguntzarako eskabideen egoera (ezetsiak, erantzunaren zain, emanak), eta diru-zenbatekoak. Horrelakorik eskatu ez bada, deialdira aurkeztutako programetarako bestelako laguntzarik eskatu edo jaso ez dela adierazten duen dokumentua.

d) Kirol-programa azaltzen duen memoria (II. eranskina), honako hauek adierazita:

– Federazioak antolatu asmo dituen kirol-lehiaketa ofizialak. Lehiaketen gutxi gorabeherako kopurua, espezialitate edo diziplinen eta kategorien arabera. Parte hartuko duten kirolari eta klub kopurua eta parte hartuko duten klub gehienak adierazi beharko da, federazioan afiliatuta dauden klub guztien aldean.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak. Egingo diren jardueren zerrenda, eta zenbat partaide arituko den eta zenbat ordu, gutxi gorabehera.

– Zuzendari teknikorik dagoen. Haren titulazioa, dedikazioa ordutan eta federazioarekin duen lotura.

– Federazioak antolatutako jarduerak, parte-hartzera bideratutako kirolen inguruan (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kirol-selekzioen jarduerak.

– Kirol-mota bertokoa den.

– Federazioak zer ekintza bultzatzen dituen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak baztertzeko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko.

e) Federazioen estamentu-liburua, Kirol Erakundearen Erregistroak legeztatua, eta Federazioaren idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako egiaztagiria, 2016ko abenduaren 31n federazioak zituen kirolari federatuen kopurua adierazten duena (III. eranskina).

f) 2016ko abenduaren 31n federazioak afiliatuen artean zituen goi-mailako kirolarien zerrenda (Kirol Kontseilu Gorenak edo Eusko Jaurlaritzak onartuak).

g) Federazioak euskara zenbateraino erabiltzen duen adierazten duen memoria (IV. eranskina). Honako hauek aipatuko dira:

– Zenbat prestakuntza-ikastaro ematen diren euskaraz.

– Euskararen erabilera federazioaren dokumentu eta argitalpenetan.

– Euskarazko web orriak duen.

– Jendeari euskaraz kasu egiten zaion.

– Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.

– Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.

– Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakunde eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik jaso, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrita (V. eranskina).

i) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakunde eskatzailea ez dagoela sartuta laguntzak itzultzeko prozedura batean edo zehapen-prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

j) Txapelketa ofizial propioen egutegia, Federazioko idazkariak sinatua eta presidenteak onztat emana, Batzar Nagusiak zein egunetan onartu duen adierazita.

k) Euskalit-en 3K programaren Kudeaketa Aurreratuko diploma edo baliokidea, federazioak halakorik baldin badu.

4. artikulua.– Diru-zuzkidura.

2017ko ekitaldirako, agindu honetan arautzen diren laguntzak finantzatzeko bideratu den aurrekontu-zuzkidura bi milioi hirurehun eta berrogeita hamar mila (2.350.000) eurokoa da.

5. artikulua.– Laguntzak kuantifikatzeko irizpideak.

Segidan zehazten diren zenbatekoen batuketak esango du agindu honen deialdian parte hartuko duten federazioei zenbateko diru-laguntza emango zaien:

1.– Federazio bakoitzak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko abenduaren 15eko Aginduaren babesean 2016ko kirol-programak finantzatzeko eskuratu zuen diru-laguntzaren erdia (% 50). Agindu horren bidez, Euskal kirol-federazioen 2016ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautu zen.

2.– Aurreko puntuaren arabera federazio eskatzaile bakoitzarentzako diru-kopurua zehaztu ondoren, horien guztien batuketa agindu honetako 4. artikuluan zehaztutako kopuruari kenduko zaio eta gelditzen dena irizpide hauen arabera banatuko da:

a) Kirol-programa (puntuen % 70).

Honako hauek hartuko dira kontuan kirol-programaren interesa balioesteko:

– Federazioak antolatu asmo dituen kirol-lehiaketa ofizialak.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak.

– Zuzendari teknikorik dagoen.

– Federazioak antolatutako jarduerak, parte-hartzera bideratutako kirolen inguruan (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kirol-selekzioen jarduerak.

– Kirol-mota bertokoa den.

b) Lizentzia federatua duten kirolarien kopurua (puntuen % 5).

c) Euskararen erabilera (puntuen % 10). Puntu bana emango zaie euskaraz osoki egindako honako ekintza hauei, eta puntu erdia euskaraz partez egindako ekintza bakoitzari: Guztizko zazpi puntuak lortzen dituenari beste hiru emango zaizkio, eta horrela gehieneko hamarrak lortuko ditu.

- Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.
- Euskararen erabilera federazioaren dokumentu eta argitalpenetan.
- Euskarazko web orria izatea.
- Jendeari euskaraz kasu egitea.
- Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzea.
- Federazioko kideekin euskara erabiltzea.
- Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzea.

d) Autofinantzaketa-maila (puntuen % 5), honako banaketa honen arabera:

- % 0,00 - % 49,99: 0 puntu
- % 50,00 - % 74,99: 2 puntu
- % 75etik gora: 5 puntu

e) Goi-mailako kirolarien kopurua, Kirol Kontseilu Gorenak edo Eusko Jaurlaritzak onartuak (puntuen % 5), honako banaketa honen arabera:

Kirolari kop.	Puntuak
1-3	2
4-6	4
6 baino gehiago	5

f) «Kudeaketa Aurreratuko Diploma», Euskalit-en 3K Programakoa: diploma horrek aintzat hartzen ditu Euskalit-en kanpoko kontrastearen zerbitzua jaso eta kudeaketa aurreratua edo haren baliokidea osatzen duten elementuak garatzeko konpromisoa erakusten duten erakundeak. (puntuen % 5)

3.– Aurreko paragrafoan zehaztutako balorazioa egin ondoren, federazio bakoitzari dagokion gainontzeko diru-zenbatekoa honela kalkulatu da: federazio bakoitzak lortutako puntuazioak federazio guztien puntuazioarekiko erakusten duen ehunekoa aplikatuko zaio artikulu honen 2. puntuari aipatzen den guztirako kopuruari.

6. artikulua.– Laguntzak ordaintzeko prozedura.

1.– Diru-laguntzaren onuradun izateko betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta agindu honetako 3. artikuluan eskatzen den dokumentazio guztia eta diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren, Gazteria eta Kiroletako zuzendariak ebazpena emango du onuradun bakoitzak jasoko duen lehenengo aurrerapena zenbatekoa izango den zehazteko eta ordainketa egiteko, abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuko 5. artikuluan adierazitako ordainketa-arauegian xedatzen denarekin bat etorritik (dekretu horren bidez, euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak arautzen dira).

2.– Bigarren ordainketa aurreratua Gazteria eta Kiroletako zuzendariaren ebazpen bidez egingo da, betiere aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren. Bigarren zati hori aipatutako urteko diru-laguntzaren % 25 izango da.

3.– Diru-laguntzaren gainerakoa, alegia, eskaera egin den urterako onartutako diru-laguntzaren guztia osatu artekoa, aurreratutako ordainketetan emandako zenbatekoak justifikatu ondoren likidatuko da.

7. artikulua.– Laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 30. eta 31. artikuluetan ezarritakoa aintzat hartuz, diru-laguntzaren bat jaso duten federazioek diru hori agindu honetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako helburuetarako erabili dela egiaztatu behar dute 2018ko otsailaren 15a baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

a) 2017. aurrekontuaren likidazioa, Batzar Nagusiak onartua, VII. eranskineko ereduaren arabera.

b) Burututako kirol-proiektuari buruzko memoria zehatza. Horrekin batera, eskabidean zehaztutako jarduerak burutu direla erakusten duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

c) Helburu bererako beste diru-laguntzaren bat jaso bada eta deialdi honetarako eskaera aurkeztu zen unean horren berri ez bazuten, horien zerrenda aurkeztu behar dute federazioek.

d) Gastuaren justifikazioa.

Gastua justifikatzeko, jatorrizko fakturak edo Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak zein Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko lurralde-ordezkaritzek behar bezala konpultsatutako fotokopiak aurkeztu behar dira. Fakturen zenbatekoa emandako diru-laguntzaren bestekoa izan behar da, ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.

e) Eskabidea egiterakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoa aurkeztu duten federazioei dagokienez, konpromiso hori betetzen dela egiaztatzen duten agirien aleak.

2.– Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du eta, hala badagokio, dagoeneko ordaindu den baina itzuli egin behar den zenbatekoa adieraziko du, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin bat etorrira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jakinarazten du emandako datuak eta deialdi honen eskabidean eta inprimakietan ageri direnak Kultura Saileko fitxategi batean sartuko direla, «Kiroletako Laguntzak eta Diru-laguntzak» izenekoan. 2015eko abenduaren 2ko Aginduan araututa dago fitxategi hori, eta haren xedea da diru-laguntzen deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente kudeatu ahal izatea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurretik eman zaio fitxategi horren berri, eta baditu datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezko diren segurtasun-neurriak; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalak babesteari buruzko arautegiarekin bat etorriz, datu horiek eskuratzeko, ezabatze, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dute interesdunek, halaxe onartzen baitu beren-beregi Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Legeak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo beharko dute (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak Administrazioari baimena ematen diote emandako datuak konparatzeko eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatze (Administrazio honen esku egon zein beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), betiere laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo horiei eusten zaiela egiaztatze.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetako diru-laguntzak emateko, ezinbesteko baldintza da kreditu egokia eta behar bestekoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017. urteko Aurrekontu Orokorretan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espeditenteen aurretiko izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 20a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

EUSKAL KIROL-FEDERAZIOEK 2017AN KIROL-PROGRAMAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

FEDERAZIOARI BURUZKO DATUAK

Izena edo izen soziala:

.....

Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-erakundeen erregistroko inskripzio-zenbakia:

Inskripzio-data: IFZ zk.:

Helbidea:

Posta-kodea: Herria:.....

Telefono-zk.: Faxe:

Posta elektronikoa (e-maila):

FEDERAZIOKO LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

Izen-abizenak:

..... NANA:

Helbidea:

Posta-kodea: Herria:

Telefono-zk.: Faxe:

Posta elektronikoa (e-maila):

.....-(e)n, 2017ko-aren ...-(e)an.

Izen-abizenak: NANA:

Izenpea

Eskabidea egiten duen pertsonak berak izenpetu beharko du, eta erakundearen legezko ordezkaritza izan beharko du.

ERAKUNDE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a) Eskabidearen inprimakia (I. eranskina).

a.1.– Federazioaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta dagokion ordezkari-ahalmenaren egiaztapena, hau da, ahalordetze-eskrituraren kopia edo, hala badagokio, dagokion erakundeak emandako ziurtapena.

b) Erakundearen 2017ko aurrekontua, batzar nagusiak onartua, VI. eranskineko kontabilitate-ereduaren arabera.

c) Federazioko idazkariak egindako ziurtagiria, eskatutako laguntzei edo jasotzea espero direnei buruzkoa, haiek ematen dituen erakunde publiko nahiz pribatua aipatuz, bai eta eskaeraren egoera ere (ukaturik, ebatzi gabe, emanik eta zenbatekoa). Horrelakorik eskatu ez bada, diru-laguntzara aurkeztutako programetarako bestelako laguntzarik eskatu edo jaso ez dela adierazten duen dokumentua.

d) Kirol-proiektua azaltzen duen memoria (II. eranskina).

e) Kirol Erakundeen Erregistroak legeztatutako federazio-estamentuen liburua, eta idazkariak egin eta federazioko lehendakariak ontzat emandako ziurtagiria, 2016ko abenduaren 31n federatutako kirolarien kopurua adierazten duena (III. eranskina).

f) 2016ko abenduaren 31n federazioan afiliatutako goi-mailako kirolarien zerrenda (Kirol Kontseilu Gorenak eta/edo Eusko Jaurlaritzak halakotzat dituenak).

g) Federazioak euskara erabiltzen duen azaltzen duen memoria (IV. eranskina).

h) Erantzukizunpeko adierazpena, erakunde eskatzaileak diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen penal edo administratiborik ez duela eta horiek eskuratzeko legezko debekurik ez duela adierazten duena (V. eranskina).

i) Erantzukizunpeko adierazpena, erakunde eskatzailea inongo itzulketa- edo zehapen-prozeduratan sartuta ez dagoela adierazten duena (EAEko Administrazio Orokorreko edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzan dagoena).

j) Lehiaketa ofizialen egutegia, federazioko idazkariak sinatua eta lehendakariak ontzat emana, Batzar Nagusiak zein egunetan onartu duen adieraziz.

k) Kudeaketa Aurreratuaren Diploma, Euskaliten 3k Programarena edo baliokidea.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak jakinarazten duenez, emandako datuak eta deialdi honen eskabidean eta inprimakietan ageri direnak bere jabetzako fitxategi batean sartuko dira, «Kiroletako Laguntzak» izenekoa, Kultura Sailarena, 2006ko uztailaren 26ko Aginduan arautua, laguntza-deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente kudeatu ahal izateko. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, fitxategiak datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegiari jarraituz, datu horiek eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dago, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara joaz (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.)

Lehiaketa honetara aurkezten diren pertsonak Administrazioari baimena ematen diote emandako datuak konparatzeko eta agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku nahiz beste Herri Administrazio batzuen esku daudenak), betiere laguntzak jaso ahal izateko baldintzak bete eta mantentzen direla frogatzeko.

III. ERANSKINA

2016ko abenduaren 31n lizentzia federatua duten kirolarien kopurua

Jaiotza-urtea	Lizentzia federatua duten kirolarien kopurua	
	Emakumeak	Gizonak
1996 eta lehenago		
1997-1998		
1999-2000		
2001-2002		
2003 eta ondoren		
Guztira		

.....-(e)n, 2017ko-aren ...-(e)an.

Idazkaria

Lehendakariak O.E.

Oharra: eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren arabera, 2002tik aurrera jaiotako kirolarien lizentziak III. eranskinean sartu ahal izateko, dagokion foru-aldundiaren baimena aurkeztu behar da Kirol Erakundearen Erregistroan. 2001ean jaiotakoak eranskinean sartu ahal izateko, baimena lortua izan behar dute 2015-2016 eskola-kiroleko programa hasi ondoren (2015eko iraila), edo, programa hori hasi aurretik lortu badute baimena (2015eko iraila baino lehen), lehen aipatutako baimena aurkeztu behar da.

IV. ERANSKINA

EUSKARAREN ERABILERAREN BERRI EMATEN DUEN MEMORIA
(AGINDUKO 3.G ARTIKULUA)

Euskal federazioaren izena:

1.– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak

A) Bat ere ez

B) Zenbait Zein:
.....C) Denak Zein:
.....2.– Euskara erabiltzen al da federazioko
agirietan eta argitalpenetan? Bai Ez 3.– Ba al du euskarazko web orririk? Bai Ez
Zati batean 4.– Jendeari euskaraz egiten zaio kasu? Bai Ez 5.– Euskara erabiltzen al da federazioaren
kanpo-harremanetan? Erakundeekin Bai Ez Komunikabideekin
Bai Ez

Beste batzuk: zeintzuk.

.....
.....
.....

2016ko abenduaren 30a, ostirala

6.– Euskara erabiltzen al da federazioko kideekiko harremanetan?

Lurralde-federazioekin

Bai Ez

Klubekin

Bai Ez

Batzarretan

Bai Ez

Beste batzuk: zein

.....
.....
.....

7.– Euskara erabiltzen al da federazioaren hizkuntza-paisaian (errotuluak, postontziak, iragarkiak, etab.)

Bai Ez Zati batean

Idazkaria

Lehendakariak O.E.

V. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IZEN-ABIZENAK

NAN.....

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DUT HONAKO HAU:

Ordezkatzen dudan erakundeak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen duen zigor administratibo edo penalik, eta ez duela diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik bere gain, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrita.

Erakunde eskatzailea ez dagoela inongo itzulketa- edo zehapan-prozeduratan sartuta, hau da, EAEko Administrazio Orokorreko edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

Sinadura

Eskabidea egiten duen pertsonak berak izenpetu beharko du, eta erakundearen legezko ordezkari izan beharko du.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak jakinarazten duenez, emandako datuak eta deialdi honen eskabidean eta inprimakietan ageri direnak bere jabetzako fitxategi batean sartuko dira, «Kiroletako Laguntzak» izenekoa, Kultura Sailarena, 2006ko uztailaren 26ko Aginduan arautua, laguntza-deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente kudeatu ahal izateko. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, fitxategiak datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegiari jarraituz, datu horiek eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dago, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara joaz (Donostian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Lehiaketa honetara aurkezten diren pertsonak Administrazioari baimena ematen diote emandako datuak konparatzeko eta agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku nahiz beste Herri Administrazio batzuen esku daudenak), betiere laguntzak jaso ahal izateko baldintzak bete eta mantentzen direla frogatzeko.

VI. ERANSKINA

ERAKUNDEAREN 2017KO EKITALDIRAKO AURREKONTUA

GASTUEN AURREKONTUA		
1. PROGRAMA: LANGILE-GASTUAK		
Kodea		
1.1	Nominak	
1.2	Gizarte Segurantzako kuotak	
1.3	PFEZ atxikipenak	
1.4	Bidaia-gastuak eta -dietak (langileak, zuzendariak)	
1.5	Beste gastu batzuk	
GUZTIRA		
2. PROGRAMA: JARDUERA-GASTUAK		
Kodea		
2.1	Telefonia eta Interneta	
2.2	Weba mantentzea	
2.3	Hornidurak (ura, argia, gasa...)	
2.4	Bulegoko materiala	
2.5	Postako, mezularitzako, fotokopietako gastuak	
2.6	Konponketak eta mantentze-lanak	
2.7	Garbiketa	
2.8	Itzulpen-zerbitzuak	
2.9	Kanpo-zerbitzuak (juridikoa, laborala)	
2.10	Errentamenduak	
2.11	Aseguruak (lokalak, lehiaketak antolatzea eta erantzukizun zibila).	
2.12	Ibilgetu ez-materialaren amortizazioa	
2.13	Ibilgetu materialaren amortizazioa	
2.14	Beste gastu batzuk	
GUZTIRA		
3. PROGRAMA: FINANTZA-GASTUAK		
Kodea		
3.1	Banku-komisioak	
3.2	Kreditu-interesak	
GUZTIRA		

4. PROGRAMA: LIZENTZIAK		
Kodea		
4.1	Kirol-asegurua	
4.2	Lizentziak homologatzea	
4.3	Lizentzien kuoten zati bat ordaintzea Lurralde Federazioei	
4.4	Beste gastu batzuk	
GUZTIRA		
5. PROGRAMA: SUSTAPEN-MATERIALAK, PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK		
Kodea		
5.1	Sustapena	
5.2	Merchandising	
5.3	Batzarrak eta zuzendaritza-bilerak antolatzea eta haietara joatea	
GUZTIRA		
6. PROGRAMA: KIROL-PROGRAMAREN JARDUERAK		
Kodea		
6.1	EUSKADIKO TXAPELKETA	
6.1.1	Emakumeak	
6.1.1.1	Garaikurrak eta dominak	
6.1.1.2	Gauzatze teknikoa	
6.1.1.3	Laguntza medikoa	
6.1.1.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza	
6.1.1.5	Joan-etorriak	
6.1.1.6	Mantenua	
6.1.1.7	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, izen-emateak...)	
GUZTIRA		
6.1.2	Gizonezkoak	
6.1.2.1	Garaikurrak eta dominak	
6.1.2.2	Gauzatze teknikoa	
6.1.2.3	Laguntza medikoa	
6.1.2.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza	
6.1.2.5	Joan-etorriak	
6.1.2.6	Mantenua	
6.1.2.7	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, izen-emateak...)	
GUZTIRA		

6.2	ESPAINIAKO TXAPELKETA	
6.2.1	Emakumeak	
6.2.1.1	Joan-etorriak	
6.2.1.2	Ostatua eta mantenua	
6.2.1.3	Laguntza medikoa	
6.2.1.4	Laguntza teknikoa	
6.2.1.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, izen-emateak...)	
	GUZTIRA	
6.2.2	Gizonezkoak	
6.2.2.1	Joan-etorriak	
6.2.2.2	Ostatua eta mantenua	
6.2.2.3	Laguntza medikoa	
6.2.2.4	Laguntza teknikoa	
6.2.2.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, izen-emateak...)	
	GUZTIRA	
6.3	EUSKAL SELEKZIOEN KONTZENTRAZIOAK	
6.3.1	Emakumeak	
6.3.1.1	Joan-etorriak	
6.3.1.2	Mantenua	
6.3.1.3	Laguntza medikoa	
6.3.1.4	Laguntza teknikoa	
6.3.1.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, izen-emateak...)	
	GUZTIRA	
6.3.2	Gizonezkoak	
6.3.2.1	Joan-etorriak	
6.3.2.2	Mantenua	
6.3.2.3	Laguntza medikoa	
6.3.2.4	Laguntza teknikoa	
6.3.2.5	Beste gastu batzuk (kirol-materiala, izen-emateak...)	
	GUZTIRA	
7. PROGRAMA: PRESTAKUNTZA		
Kodea		
7.1	Epaileak prestatzeko ikastaroak	
7.2	Entrenatzaileak prestatzeko ikastaroak	
7.3	Monitoreak prestatzeko ikastaroak	
7.4	Beste batzuk	
	GUZTIRA	

8. PROGRAMA: HIRUGARRENTZAKO TRANSFERENTZIAK		
Kodea		
8.1	Kirolarientzat (sariak)	
8.2	Lurralde-federazioentzat	
8.3	Klubentzat	
8.4	Beste batzuk	
GUZTIRA		
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA (Programak: 1etik 8ra)		
SARREREN AURREKONTUA		
1. PROGRAMA: DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BABESLARITZA		
Kodea		
1.1	Kultura Sailaren urteko programa	
1.2	Beste laguntza publiko batzuk	
1.3	Babeslaritza	
GUZTIRA		
2. PROGRAMA: LIZENTZIAK		
Kodea		
2.1	Kirolarien lizentziak	
2.2	Kluben lizentziak	
GUZTIRA		
3. PROGRAMA: TXAPELKETAK ETA NORGEHIAGOKAK		
Kodea		
3.1	Izen-emateak	
3.2	Zigorak	
3.3	Sarrerak	
3.4	Beste batzuk	
GUZTIRA		
4. PROGRAMA: PRESTAKUNTZA		
Kodea		
4.1	Izen-emateak	
4.2	Beste batzuk	
GUZTIRA		
5. PROGRAMA: FINANTZA-SARRERAK		
Kodea		
5.1	Finantza-sarrerak	
GUZTIRA		

6. PROGRAMA: BESTE SARRERA BATZUK		
Kodea		
6.1	Merchandising	
6.2	Irudi-eskubideak	
6.3	Beste batzuk	
GUZTIRA		
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA (1etik 6ra arteko programak)		

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak jakinarazten duenez, emandako datuak eta deialdi honen eskabidean eta inprimakietan ageri direnak bere jabetzako fitxategi batean sartuko dira, «Kiroletako Laguntzak» izenekoa, Kultura Sailarena, 2006ko uztailaren 26ko Aginduan arautua, laguntza-deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente kudeatu ahal izateko. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, fitxategiak datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegiari jarraituz, datu horiek eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dago, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara joaz (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Lehiaketa honetara aurkezten diren pertsonak Administrazioari baimena ematen diote emandako datuak konparatzeko eta agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku nahiz beste Herri Administrazio batzuen esku daudenak), betiere laguntzak jaso ahal izateko baldintzak bete eta mantentzen direla frogatzeko.

2016ko abenduaren 30a, ostirala

VII. ERANSKINA

2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA				
1. PROGRAMA: LANGILE-GASTUAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorriz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
1.1	Nominak			
1.2	Gizarte Segurantzako kuotak			
1.3	PFEZ atxikipenak			
1.4	Bidaietako gastuak eta dietak (langileak, zuzendariak)			
1.5	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				
2. PROGRAMA: JARDUERA-GASTUAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorriz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
2.1	Telefonia eta Interneta			
2.2	Web orria mantentzea			
2.3	Hornidurak (ura, argia, gasa...)			
2.4	Bulegoko materiala			
2.5	Postako, mezularitzako, fotokopietako gastuak			
2.6	Konponketak eta mantentze-lanak			
2.7	Garbiketa			
2.8	Itzulpen-zerbitzuak			
2.9	Kanpo-zerbitzuak (juridikoa, laborala)			
2.10	Errentamenduak			
2.11	Aseguruak (lokalak, lehiaketak antolatzea eta erantzukizun zibila).			
2.12	Ibilgetu ez-materialaren amortizazioa			
2.13	Ibilgetu materialaren amortizazioa			
2.14	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				
3. PROGRAMA: FINANTZA-GASTUAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorriz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
3.1	Banku-komisioak			
3.2	Kreditu-interesak			
GUZTIRA				

4. PROGRAMA: LIZENTZIAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
4.1	Kirol-asegurua			
4.2	Lizentziak homologatzea			
4.3	Lizentzien kuoten zati bat ordaintzea Lurralde Federazioei			
4.4	Beste batzuk			
GUZTIRA				
5. PROGRAMA: SUSTAPEN-MATERIALAK, PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
5.1	Sustapena			
5.2	Merchandising			
5.3	Batzarrak eta zuzendaritza-bilerak antolatzea eta haietara joatea			
GUZTIRA				
6. PROGRAMA: KIROL-PROGRAMAREN JARDUERAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
6.1	EUSKADIKO TXAPELKETA			
6.1.1	Emakumeak			
6.1.1.1	Garaikurrak eta dominak			
6.1.1.2	Gauzatze teknikoa			
6.1.1.3	Laguntza medikoa			
6.1.1.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza			
6.1.1.5	Joan-etorriak			
6.1.1.6	Mantenua			
6.1.1.7	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				
6.1.2	Gizonezkoak			
6.1.2.1	Garaikurrak eta dominak			
6.1.2.2	Gauzatze teknikoa			
6.1.2.3	Laguntza medikoa			
6.1.2.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza			
6.1.2.5	Joan-etorriak			
6.1.2.6	Mantenua			
6.1.2.7	Beste gastu batzuk			
GUZTIRA				

6.2	ESPAINIAKO TXAPELKETA			
6.2.1	Emakumeak			
6.2.1.1	Joan-etorriak			
6.2.1.2	Ostatua eta mantenua			
6.2.1.3	Laguntza medikoa			
6.2.1.4	Laguntza teknikoa			
6.2.1.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.2.2	Gizonezkoak			
6.2.2.1	Joan-etorriak			
6.2.2.2	Ostatua eta mantenua			
6.2.2.3	Laguntza medikoa			
6.2.2.4	Laguntza teknikoa			
6.2.2.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.3	EUSKAL SELEKZIOEN KONTZENTRAZIOAK			
6.3.1	Emakumeak			
6.3.1.1	Joan-etorriak			
6.3.1.2	Mantenua			
6.3.1.3	Laguntza medikoa			
6.3.1.4	Laguntza teknikoa			
6.3.1.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.3.2	Gizonezkoak			
6.3.2.1	Joan-etorriak			
6.3.2.2	Mantenua			
6.3.2.3	Laguntza medikoa			
6.3.2.4	Laguntza teknikoa			
6.3.2.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
7. PROGRAMA: PRESTAKUNTZA				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
7.1	Epailleak prestatzeko ikastaroak			
7.2	Entrenatzaileak prestatzeko ikastaroak			
7.3	Monitoreak prestatzeko ikastaroak			
7.4	Beste batzuk			
	GUZTIRA			

2016ko abenduaren 30a, ostirala

8. PROGRAMA. HIRUGARRENTZAKO TRANSFERENTZIAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritik)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
8.1	Kirolarientzat (sariak)			
8.2	Lurralde-federazioentzat			
8.3	Klubentzat			
8.4	Beste batzuk			
GUZTIRA				
GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA GUZTIRA (1etik 8ra arteko programak)				
SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA				
1. PROGRAMA: DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BABESLARITZA				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritik)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
1.1	Kultura Sailaren urteko programa			
1.2	Beste laguntza publiko batzuk			
1.3	Babeslaritza			
GUZTIRA				
2. PROGRAMA. LIZENTZIAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritik)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
2.1	Kirolarien lizentziak			
2.2	Kluben lizentziak			
GUZTIRA				
3. PROGRAMA. TXAPELKETAK ETA NORGEHIAGOKAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritik)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
3.1	Izen-emateak			
3.2	Zigorrak			
3.3	Sarrerak			
3.4	Beste batzuk			
GUZTIRA				
4. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritik)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
4.1	Izen-emateak			
4.2	Beste batzuk			
GUZTIRA				
5. PROGRAMA. FINANTZA-SARRERAK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritik)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
5.1	Finantza-sarrerak			
GUZTIRA				

6. PROGRAMA. BESTE SARRERA BATZUK				
Kodea		Aurrekontuan sartutakoa (VI. eranskinarekin bat etorritz)	Gastatutakoa	Justifikatutakoa
6.1	Merchandising			
6.2	Irudi-eskubideak			
6.3	Beste batzuk			
GUZTIRA				
SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA GUZTIRA (1etik 6ra arteko programak)				

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak jakinarazten duenez, emandako datuak eta deialdi honen eskabidean eta inprimakietan ageri direnak bere jabetzako fitxategi batean sartuko dira, «Kiroletako Laguntzak» izeneko, Kultura Sailarena, 2006ko uztailaren 26ko Aginduan arautua, laguntza-deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo -espediente kudeatu ahal izateko. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, fitxategiak datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegiari jarraituz, datu horiek eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dago, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara joaz (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Lehiaketa honetara aurkezten diren pertsonak Administrazioari baimena ematen diote emandako datuak konparatzeko eta agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku nahiz beste Herri Administrazio batzuen esku daudenak), betiere laguntzak jaso ahal izateko baldintzak bete eta mantentzen direla frogatzeko.